

Gai ordena:

- 1- Frontoia**
- 2- Errepideak**
- 3- Dirulaguntzak**
- 4- Gai pendenten jarraipena eta bestelakoak**

1- Frontoia

Frontoian irisgarritasuna nola lortu eztabaidatu dugu. Plaza bertatik aldapa egin nahiko bagenu zailtasun handiak egongo lirateke (pendientea maximoa etab.). Aukera asko mahaigaineratu dira eta guztiek dituzte alde onak eta alde txarrak. Bukaeran 3 aukera hauek baloratzea onartu da (O.A.-k proposamen zehatzak ekarriko ditu):

- Frontoia plazaren altura berean utzi (hutsunea betez edo azpian espazio handi bat sortuz).
- Altura pixkat igo eta bi grada utzi (plazatik aldapa egiten lagunduko luke).
- Frontoi atzetik sarrera bat egin, gutxienez gurpildun aulkiak etab. sartu ahal izateko.

2- Errepideak

Aldundiko Errepidetako arduradunak herrira etorri ziren duela egun batzuk. Eskuratu berri dugun Beheko Kanpa erabiliz Beheko Kaleri irteera bat egin ahal izango zaiola konfirmatu ziguten. Irteera "Bide Gain" baino pixkat haratago egitea posible ikusten dute. Bestalde udalak plazan semaforo bat jarri dezakela ere konfirmatu dute.

3- Dirulaguntzak

Erein-en dirulaguntzak atera dira. Ur depositoko tuberia nagusia aldatzeko eskatuko da laguntza, baita herri-bideen mantenimendurako ere (O.A., A.G.).

4- Gai pendentek

Bizikleta gordailua: Aurrekontua eskatuta dago eta gordailuaren arautegia Ainara teknikariarekin lantzen ari gara (X.I., A.R.).